



## **IBILBIDEEN BALIZATZAILE BAIMENDUA ETA JAGOLE**

### **IZATEKO IKASTAROA**

#### **BIZKAIKO IBILBIDEEN 1 JAGOLE TAILERRA.**

### **1 Ibilbideen Jagole Tailerra**

Tokia: Kirol Etxea, Bilbao Miribilla

Egunak: azaroak 5,7, 12an

Saio teorikoak: 19:00etatik 21:30etara

Praktika: egun erdia larunbata edo igandean 9/10an.

#### **Matrikula dohainik**

**Inskripzioak:** Telefonoa: 94 443 17 34

E-maila: [senderos@bmf-fvm](mailto:senderos@bmf-fvm)

Taldeek eskatzen dituzten tailerrak adostutako egun eta lekuan egingo dira.

Tailerrak eskatzen dituzten klubek hartu behar dituzten ardurak:

- BMFrekin koordinatuko duen persona aukeratu
- Inskripzioen ardura hartu.
- Tailerra egiteko areto egokia bilatu (proiektore bat erabiliko da).



Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzari esker, azken urtean, bizkaiko ibilbide balizatuen sarea hobetzeko hainbat lan burutu dugu.

Denbora honetan gure herrialdean senderismoa garatzeko eta ordenatzeko oinarriak garatzen aritu gara.

Ibilbide balizatuen gaur eguneko egoeran ikusi dugun akatsik larrienetarikoa mantenimendu eza izan da eta honen ondorioz degradazio nabaria. Ibilbideen sustatzaileek ez dituzte mantenimendu lanetan dagozkien lanak kontutan hartzen.

Eusko Jaurlaritzak senderismoa garatzeko egindako dekretuan argi eta garbi esanten du herrialde bakoitzean ibilbideen jagotza herrialdeko Federazioari dagokiola.

Hau ikusita, martxan jartzen ari garen ekimenen artean, klubei zuzendutako Ibilbide Balizatzaile eta Jagole Ikastaroari garrantzi handia eman nahi diogu. Ikastaroa bi tailer, Ibilbideen Jagole eta Balizatzaile Baimenduen Tailerra osatzen dute.

Ikastaro honen helburua BMFko Senderismo Batzordearekin hondoko lanetan kolaboratzeko boluntarioen taldeak sortzea da:

- Ibilbideen egoeraren jagotza, ikusten diren gertakarietaz informatuz.
- Eta ibilbide sustatzaileei laguntza eskaitzen (udaletxeak) ibilbideen diseinuak egiteko orduan.

**Tailer hauen eskaintza bi erara izango da. Alde batetik Federazioak berak luzatuko ditu dieialdiak eta bestetik klubek bakarka zein eskualdeka eskatu ahal izango dituzte.**

Tailerretan parte hartzen dutenek, nahi izanez gero, BMFko Senderismo Batzordeko Boluntarioen Taldean parte hartu ahal izango dute

Boluntarioen talde honetan egingo den lana eskuladeka izango da, talde bakoitza bere inguru naturalean arituko da Fereazioko tekinkariekin koordinatuz.

Bideen Jagole Tailerrak urte honen bukaerararte eta datorren urteko lehen hilabeteetan eskainiko dira. **Lehen tailerra azaroan Miribillako Kirol Etxean egingo da.**

**Inskripzioa dohainik**



Balizatzaile Baimenduen Tailerra egiteko ezinbestekoa izango da aurretik Jagole Tailerra egitea eta senderismoko boluntarioen talderen batetan parte hartzea.

Tailer hauetara etortzeagatik emango diren akreditazioak soilik federazio mailako balioa izango dute.

### **Bizkaiko Ibilbideen 1 Jagole Tailerra.**

#### Helburuak:

1. Senderismoaren gizarte, ekonomia eta kultura dimentsioa aztertu, erabiltzaile ikuspegia partziala gainditzeko. Senderismoan eragina duten faktore eta egileen konplexutasuna kontutan hartu behar ditugu.
2. Jagole lana egiteko prestakuntza lortu.
3. Eskualdeka Ibilbideen Jagole Boluntarioen taldeak sortu.
4. BMFak talde hauen antolaketarekin lortu nahi duena zera da: boluntarioen taldeen eta entitate sustatzaileen (Udaletxeak eta LGAak) artean elkarlana bultzatu ibilbideen jagotzari dagokionean, proiektu berrietan, moldaketetan, eta abar.
5. BMFk proposatuta boluntarioen taldeen arteko topaketak sustatu, egindako lanak konpartizeko eta gure burua gai ikusten dugunean beste lan mota batzuei aurre egiteko, ibilbideen sustatze lana, mantenimentu lanak,..



## Edukinak

Saio teorikoak: 2,30 orduko 3 saio

1. saio teorikoa:

- Xendazaletasuna eta ibilbidearen definizioak
- Xendazaletasunaren dimentsio soziala, ekonomikoa, eta instituzionala.
  - Bizkaiko GR eta PR ibilbideen homologatzeko arauak, irizpideak eta protokoloa.

2. saio teorikoa:

- Seinalizazio eskuliburua eta MIDE. Saioaren 1/3
- GPSaren oinarrizko erabilpena( waypoints, tracks,..). Saioaren 1/3.
- Egingo den praktikaren azalpena. Saioaren 1/3.

Saio praktikoa:

- Ibilbide baten ikuskapena eta gertakirien txostena. Saio hau larunbatean edo igandean egingo da.

3. saio teorikoa

- Ikuskapen praktikoan egindakoa konpartitu.
- Gogobetetasun-inkesta.
- Asistentzi ziurtagiria.